



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ARABAKO TAEKWONDO FEDERAZIOAREN PRESIDENTEAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA AINTZAT HARTZEN DUENA

Espedientea: 37/2017

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak, Arabako Taekwondo Federazioko presidentek, 2017ko maiatzaren 12an «2017ko maiatzaren 13an egingo den hurrengo Taekwondoko Junior Txapelketaren» kontrako aurkaratze-idatzi bat aurkeztu zuen.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen, eta bai Euskadiko Federazioari bai Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-federazioei jakinarazi zien hamabost laneguneko epea zutela alegazio-idazkia aurkezteko eta, kasuan-kasuan, egokitzat jotzen zituzten froga-eginbideak proposatzeko.

HIRUGARRENA.- Euskadiko Federazioaren idazkariak eta Bizkaiko Federazioaren presidentek jakinarazpenari erantzun zioten, hurrenez hurren, ekainaren 1eko eta 6ko sarrera-erregistroak dituzten idazkien bidez, eta eskatutako dokumentazioa eta alegazio-idazkia aurkeztu zituzten.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138.c) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.c) artikuluan jasotakoaren arabera, KJEBk du errekursoaz arduratzeko eskumena.

BIGARRENA.- Errekurtsogileak honako hau eskatzen zuen bere idatzian: «Euskadiko Taekwondo Federazioak datorren 2017ko maiatzaren 13rako antolatutako Taekwondoko Junior Txapelketa aurkaratutzat jotzea, erabateko deuseztasuna deklaratzeko, ez dagoelako araututa eta legez ezarritako prozedura inondik inora ez betetzeagatik, eta, ondorioz, Euskadiko Taekwondo Federazioaren (aurrerantzean, ETF) txapelketa eta ekitaldi ofizial guztiak geldiaraztea, txapelketa ofizialetako nahitaezko araudia indarrean sartu arte».

Laburbilduz, honako aurkaratze-arrazoi hau eman zuen bere asmoaren defentsan: ETFk ez du lehia-erregelamendurik eta, horregatik, ezin du aipatutako kirol-ekitaldia antolatu.

HIRUGARRENA.- Bestalde, Euskadiko Federazioak, seigarren alegazioan, honako hau adierazi zuen: «Euskadiko Taekwondo Federazioaren ustez, lehia-araudirik gabe ezin da jarduerarik gauzatu. Hori dela eta, zuek ematen duzuen ebazpena edozein delarik ere, Euskadiko Taekwondo Federazioak jarduera guztiak geldiaraztea erabaki du, aipatutako araudia onartuta egon arte (...)».

LAUGARRENA.- urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikulua honako hau xedatzen du: «Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora



desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta.

Lehenengo paragrafoan aipatutako betebeharretik salbuetsita daude prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen diren kasuak eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharririk ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozedurak».

BOSGARRENA.- Batzorde honetan zalantzak sortu dira ETFren borondate-adierazpenaren arrazoien inguruan –hirugarren oinarrian adierazten da–; alegia, «prozeduraren xedearen ustekabeko desagerpen», itun edo hitzarmen kasu bat ote den, edota onarpen hutsa. Baina, hala ere, ez dago zalantzarik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera, berariazko ebazpena eman behar dela.

Bada, ETFk txapelketa horretarako erregelamendurik izan gabe antolatu zuela kontuan hartuta, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 68.a) artikuluan xedatutakoa urratu du. Artikulu-zati horretan, honako hau dago jasota: «Kirol federazioek honako hauek arautu behar dituzte, gutxienez: a) Lehiaketa ofizialak antolatzeko eta garatzeko erregimena».

Hori guztia dela eta, Batzordeak honako hau

EBAZTEN DU



Arabako Taekwondo Federazioko presidentek 2017ko maiatzaren 13ko Taekwondoko Junior Txapelketaren harira 2017ko maiatzaren 12an aurkeztu zuen errekurtsua aintzat hartzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea